

ERREALIZAZIOA

Errealizazioa: lengoia propioa erabiltzen duen prozesua. Narratzaileek eta ikusleek kodigo komun bat konpartitzen dute.

Errealizazio unitateak:

- Hartzea: Produkzio faseko unitatea. Gerora planoak bihurtzeko aukera duten saiakera desberdinak
- Planoa: Errealizazioaren oinarriko unitatea
- Eszena: Produkzio unitatea. Espazio eta denbora batasuna duen istorioaren zatia
- Sekuentzia: Istorioaren narrazioari begira, zentzu eta esanahi batasuna du

*Plano sekuentzia: hartzea = planoak = eszena = sekuentzia

Plano motak:

- Plano orokor zabala
- Plano orokorra
- Plano osoa
- Plano amerikarra
- Plano ertain luzea
- Plano ertain motza
- Lehen planoak
- Lehen lehen planoak
- Xehetasun planoak

KAMERAREN KOKAPENA

Ikuspuntua:

Kamera kokatzen dugun toki berean kokatuko da ikuslea. Erabaki poetiko eta narratiboa ere bada.


Ikuspuntuaren arabera bi plano mota:

- Objektiboa
- Subjektiboa

Angelua:

Kamerak pertsonaiarekiko duen altuera. Motak:

- Neutro aedo normala
- Pikatua
- Kontrapikatua
- Zenitala
- Nadirra



Ardatz horizontalean kamera okertuz, ardatz horizontala eta bertikala ez dira irudiak erakutsiko duen eszenarekin bat etorriko. Honek ezegonkortasun eta oreka falta iradokitzen ditu eta baliabide adierazgarri moduan erabili daiteke.



Aberrante, itxuragabea edo holandarra

KAMERA MUGIMENDUAK

Panoramika:

Kamera ez da lekuz mugitzen, ardatzean baino ez. Horizontala edo bertikala izan daiteke.

Adibidez, ekorketa: oso azkarra, iradokitzailea. Irudi finko batetik beste irudi finko baterako bidea egiten du, abiaduraren ondorioz tarteko xehetasunak ezingo dira hauteman. Trantsizio gisa erabili ohi da.

Travelling-a:

Kamera espazioan mugitzen da. Kameraren ibilbideak eta bere ardatz optikoaren angeluak konstantea izan behar du. Desplazamendua dolly edo trenbidearen antzeko sistema baten bitartez egiten da gehienetan.

Motak:

- Travelling avant (aurrerantz)
- Travelling Retro (atzerantz)
- Alboko travelling-a
- Travelling zirkularra
- Travelling bertikala

Kamera mugimenduen funtzio narratiboak:

- Deskribatzaileak: Ikuslea espazio harreman edota egora batean kokatuko dute. Sarrera edo bukaera emateko erabili ohi dira
- Adierazgarriak: inpresio edo ideia bat iradoki nahian, kameraren erabilera ez errealista
- Dramatikoak: Harreman espazialak sortzea dute helburu. Mugimenduak mehatxu, etsaitasun itxura hartuko du.

h

*o
/
a*